

LANGRAITZEN MAKROKARTZELA BERRIA ERAIKI AURREKO LURREN MUGIMENDUA BEREHALA GELDTITZEA GALDATZEKO ARABAKO PLATAFORMAREN MANIFESTU ERATZAILEA

Plataforma hau eratu dugun elkarteok eta manifestu honi atxikitzen direnok Barne Ministeritzak Euskal Herrian bi makrogratzela, bata Langraitzen eta beste Zubietan, eraikitzearen aurka gaude. Arabakoaren kasuan badira bi argudio mota makrokartzelaren eraikuntza proiektua berehala geldiarazteko. Orain dagoenaren ondoan egingo litzateke, zeina 1981etik martxan den eta kartzela berriak 2010ean abian jarriko litzatekeena egungoaren dimentsioa eta kapazitatea hirukoiztu egingo litzuke.

Lehenik proiektu hau ukatzeko giza eta gizarte arrazoiak azpimarratzen ditugu:

1. Langraizko eta Martuteneko egungo kartzelak itxi eta Araba eta Gipuzkoan makrokartzelak eraikitzearen planak ez dira ez EAEn ez Araba eta Gipuzkoan dauden plazen beharren inguruko diagnosi batetik abiatzen zeinak kartzela berrien eraikitzea justifikatu ahalko zuketean ezta egungo gartzelen egoera kaxkarrean eta bertan dauden pertsonak pairatzen dituzten bizibaldintzekiko kezkan oinarritzen. Aitzitik, egungo Langraitzko kartzela zaharkitua itxiko den bermatu gabe, kartzela berriak eraikitzeak justifikazio bila aritu dira, atzean, Donostiako kasuan bezala, presoek eta orohar Donostiako hiritarren interesen kanpokoak diren hirigintzari lotutako dirutza interesak daudenean.

2. Zabalako gunean eraiki nahi den kartzelak 876 ziega konpartitu aurreikusten ditu, gehienak bikoitzak direnak eta ondorioz, legeak galdatutakoarekin proposamen bateragaitza izateaz gain praktikan 2000 presotik gora jasoko ditu. Gainera, egungo 650 plazak gehitu beharko genizkieke zenbaki hauei, hori baita egun gutxi gora behera dagoen preso kopurua.

3. Beste behin ere eta holako makroproiektu bat martxan jarri aurretik, ez dira kontutan izan Langraitzko biztanleen iritziak. Gainera udal arduradunak eta Gobernu zentralerako Euskadiko Ordezkaritzatik biztanleei iruzur egiten ari dira egungo espetxea itxiko dela argudiatzerakoan. Izan ere Barne Ministeritzak ez du ez itxi ez hori egingo duenik ofizialki azaldu ere.

4. Makrokartzelak eraikitzearen gobernuaren egungo politikak gizarte gatazkak konpontzeko zigorra eta espetxeratzea funtsezkoentzat dauka, populazio presoak jaisteko baldintzak eratzearen orde; horrek populazio presoaren izugarritzako hazkundera suposatzen du. Estatutuaren eskuduntza eremuen barruan bada Eusko Jaurlaritzak eskatutako txosten bat zeinak Euskal Autonomi Erkidegorako zigor sistema eredu egokitu bat planteatzen duena. Arabaren kasuan 500 bat pertsona daude egun egoitza administratiboa edo famili loturak lurralde honetan izan eta espetxean aurkitzen direnak eta aldiz 2500 plazarekin aurkituko gara, gehienak beste lurralde batzuetan izango direlarik, hemengo preso gehienek zigorra kanpoan betetzen jarraituko duten bitartean.

5. Delituaren prebentziorako eta borrokarako egungo ereduak disidentzia politikoaren eta bazterkeria egoeran dauden gizarte kolektiboen kriminalizazioan zentratzen da, gizarteak delituaren prebentzio eta ereduari dagokionez izan ditzakeen lehentasunak eztabaidatzeko aukerarik gabe utzi eta estatuaren eta bere kontrol polizial eta penalerako aparatuen interesak lehenetsiz. Eta are gutxiago ahalbidetu da eztabaidarik delituaren prebentzio eta tratamenduaren inguruko erantzunak bilatzeko.

6. Egungo espetxe plaza baten kostua herritarrontzako urteko 25 mila eurotako da, horietatik erdia espetxe funtzionarioentzat eta kartzeletan zerbitzuak ematen dituzten enpresentzat direlarik (argia, telefonoa, ura, elikadura, mantenua etab.). Beste erdia tokian tokika ingurugiro baldintzak kontutan hartu gabe mundu osoan espetxeak eraikitzen jarduten duen Estatu Batuetako multinazional batek jasotzen du; era honetan, denbora gutxian kartzela zaharkitua utziko duen material eskasak erabiliz eta ondorioz, espetxeratuak bizibaldintzak okertuz, dirutza ateratzen duen enpresa batek. Populazio espetxeratuaren hazkundera progresiboa ahalbidetzen duten zigor neurrien altzuan, makrokartzelaren eraikuntza etengabeko negozio bilakatzen da.

Bigarrenik, garrantzizko ingurugiro arguadioak nabarmendu nahi ditugu:

1. Egungo lurralde antolakuntzari dagokionez hainbat arau hauste ageri dira: Iruña Okako Arau subsidiarioak, bertan zonalde hau zoru hiritar ezintzat ageri baita. Araba Erdialdeko ZLP-a zonaldea Lurralde Babeseko Eremutzat sailkatua baitago eta beraz, Zatikako Lurralde planaren araudiko 15 artikulua dionari so hirigintza garapenen aurrean babestu beharreko eremua da. Eusko Jaurlaritzak lurralde menditsu hau Babeserako Interes Esanguratsuko Espazio Natural gisa kalifikatu du. Gainera Barne Ministeritzak kartzela berrien tokiak aukeratzeko dituen irizpideak urratzen dira.

2. Proiektuak ingurugiroan duen eraginari dagokionez hainbat kuestio nabarmendu ditzakegu. Begetazioari buruz, proiektuak ongi mantendutako baso komunitateak seriozki kaltetzen ari da; 92/43/CEE Habitat Direktibak Interes Lehenetsikotzat sailkatuak dituen habitat-ak aurkitzen dira obrek eragindako zonaldean. Faunari dagokionez, baso hauek euren habia egiten duten baso hegazti espezieak ageri dira. Gainera Arrano Beltz bikote bat egonkortu da oraintsu, zonaldea Belatz Handiarekin eta Sai Zuriarekin banatuz. Espezie guzti hauek Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan aurkitzen dira, kategoria ezberdinetan. Azkenik, ur hondakinen isuriak eta EDAR-rekoak zuzenean Zadorra ibaira jaurtiko liratezke zeina Red Natura 2000-n Garrantzi Komunitarioko Toki bezala sailkatua dagoena; sail babestu honetan Euskal Herrian mehatxupear dauden espezieak ageri dira, bisoi europarra, igaraba, blenio txuria edo zaparda, besteak beste.

3. Paradoxa bat da legea bete ez dutelakoan pertsonak bergizarteratzeko omen diren zentro itxiak eraikitzeke legeak urratzea. Guk dakigula ez da inolako ingurugiro inpakto txostenik egin Gasteiz, Laudio, Amurrio eta Agurainen ondoren 2000 pertsona hartuko dituen bosgarren gune hiritartuena izango den proiektu baten inguruan, areago, azpiegiturak zonalde ez hiritargarrian eta hirigintza planak baimentzen ez duen toki batetaz ari garenean.

Arrazoi guzti hauengatik proiektu hauen kontra agertzen gara eta erakunde partehartzaile guztiei dei egiten diegu 2006ko otsailean EAEko parlamentuak hartutako erabakia bete dezaten, zeinean espreski Zubietan eta Langraitzen bezalako era honetako proiektuen aurka agertzen diren.

Une honetan aurretiaz laurogei futbol zelaik duten azaleraren tamaina hainako lur babestuak mugitu dira, gero makrokartzela eraikitzeke. Ibilbide honetan alderdi politikotako ordezkariekin bildu gara, Euskal Legebiltzarrean izan gara, Batzar Orokorretan...Hauetako ordezkari zenbaitzuk, egun kargo publikoak dituztenek (Eusko Jaurlaritzan, Arabako diputazioan...), egungo zigortze ereduaren aurka daudela adierazi digute. Halere, gero Zaballako obrak hasita daudela ikusten ari gara eta inongo agente politiko edo instituzionalek ez du ezer egin. Egitate kontsumatuen politikaz ari gara. Honegatik, legez kanpoko obra baten aurrean gaudela uste dugu, gelditu ahal izango litzatekeelakoan gaude tresna legalak erabiliko bagenitu (helegite kontentzioso administratiboa, delitu ekolojikoagatik salaketa...) baina arduradun politikoak inhibitu egin dira, hauteskundeetan atarian egonik gauzak egiten uzten ari dira eta egiten ari diren paktuek eskuz eta hankaz lotu dituzte. Beraz, hainbat kasutan bezala elkarteoi behartzen gaituzte irregulartasunak salatu eta fiskalizazio lana egitera.

ELKARTE ERATZAILEAK: Arabako Salhaketa, Ekolojistak martxan, Arabako Hiesaren kontrako Ekimena, Etxerat, Amnistiaren Aldeko Mugimendua, Eguzki, Gaia talde ekologista.

Atxekipenak (manifestu honi atxekitzeko bai pertsonalki, nola entitate, agente politiko, sindikal edo berakunde gisa honoko helbide elektronikora zuzendu: makroespetxerikez@gmail.com)